

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko azararen 22a

Euskararen harberritzen

Tokian tokiko hizkerek gero eta eremu urriagoa dutelako, eta ondorioz, gero eta gutxiago mintzatzen direlako kezkatuak, talde bat eratu da Iruñean. Euskara baturako prozesuan egindako lanak zokoratuak utzi ditu nolabait euskalkiak, eta hori euskararen kalterako izan da, hizkerokeskaintzen duten aberastasuna ez duelako bereganatu. Orain, horiekin zer egin mahaigaineratu da, zein den euren egoera, nola sailkatu...

Guztia saretzea konplikatua izan da. Orriotan horretarako eman diren lehen pausoak bildu nahi izan ditugu.



Xoko ttikia

ESTITXU FERNANDEZ



Zer antzekotasun daude Luis Marianoren, Orson Wellesen eta Daniel Kalparsororen artean? Ez al dakizue? Ba hirurek Lesaka ezagutu zutela pelikula baten aitzakian. Ai... Zer ote du Lesakak bertzeek ez dutena...

Bai Orson Wellesen filmean, bai Luis Marianorenean Lesaka guztia aztoratu zen. Orain dela 40-45 urte gutti goiti-beheiti, pelikula baten filmaketa herriko gertakari garrantzitsuenetako bat izango zen, batez ere estra aunitz behar zizutzelako. Familia osoek hartu zuten parte, pezeta horiek hagitz ongi baitzetozen.

Aurten Daniel Kalparsorok Lesaka aukeratu du sekuentzia batzuk filmatze-

ko, bere hirugarren filmean sarturik baitabil buru-belarri. Ia herri osoa joan ginen estra bezala apuntatzera, eta jadanik etxeetara deitzen hasi dira. Goizeko zazpietatik arratsaldeko zazpietara bitarte egon behar da beraien zerbitzura, bost egunez gehienez, ego-kitutako pertsonaiaren arabera batzuk gehiago agertzen baitira besteak baino. Espero dut bazkaria ematea, eta, behin eskatzen hasiz gero, hamaiketako ere bai. Halaxe xoxa segurua da, eta esperientzia berriek dakarten irrika ere bai, gainera, denak ezagunak izanik, aunitzez hobeki!

Herrian zurrumuruak ahotik ahora dantzan dabilta jadanik: batzuek diote ETako kide baten hileta filmatuko

dela, bertze batzuek manifa bat, zipaio eta guzti... Dakiguna da filmea Euskal Herrian girotua egonen dela, eta badi-rudi bizi dugun gatazka ez duela alde batera utziko. Hala ere, ez omen da batere posizionatuko, eskuak garbituko dituela, alegia. Eta nik zailena ez posizionatzea dela pentsatzen jarraitzen dut.

Beno, deitzen banaute han izango naiz eta pelikula estreinatzen denean zoazte ikustefa, ongi fijatuz gero han ikusiko bainazue, agian hileta elizkizunetan hagitz triste edo kaletik pasiatzen bertzerik gabe, edo zipaioengandik ihesi. Ziurtzat daukat ertzain bezala ez nautela jarriko nire metro eta hiru-gehiarekin.

Zinemako izarra

* GURE AUKERAK

KONTZERTUAK

Burlata: Mikel Laboak kontzertua eskainiko du gaur, hilak 22, Elizgibela kiroldegian, gaueko 22:30etatik aurrera. Burlatako Udaleko Euskara Batzordeak antolatutako kontzertuko sarre-
rak 500 pezetan (20 libera) izanen dira salgai.

Barañain: Morochos taldeak tangoak abestuko ditu Si Bemol tabernan gaur, hilak 22, gaueko 24:00etatik aurrera.

Iruñea: Iruñeko Ganbara Abesbatzak kontzertua eskainiko du hilaren 24ean, Gaiarre antzokian, arratsaldeko 20:30etatik aurrera.

ANTZERKIA

Atarrabia: Iruña Antzerki Txikia taldeak *Jaberik gabeko zopaontzia* antzezlan taularatu du hilaren 26an, goizeko 11:30etan, herriko zinematokian. Arratsaldeko 15:30etan toki berean beste emanaldi bat izanen da.

Iruñea: Gus Marionetas taldeak *Marrubien printzesa* obra antzertuko du bihar, hilak 23, eguerdiko 12:00etan, Gaiarre antzokian, eta Iruñeko Udalaren eskutik.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Dick Rekalderen margoak ikusteko aukera dago Nafarroko Unibertsitate Publikoko erakusketan aretoan hilaren 30era arte.

IKASTAROAK

Iruñea: Urpean igeri egitea gustuko baduzu, dei ezazu 17 22 38 telefonora, eta izena eman ezazu aurki martxan jarriko duten ikastaroan parte hartzeko. Lortuko duzun tituluak nazioarteko balioa izanen du.

Zizur Nagusia: Gazteentzako herri dantza ikastaroa izanen da herriko kultur etxean. Goizez edota arratsaldez aritzeko aukera izanen da. Hilabete bakoitzeko 1.000 pezeta (40 libera) ordaindu beharko da.

BESTELAKOAK

Iruñea: Jon Gurutzeaga mendizale txantrearrak udan ekialdeko Pirinioetan egindako hainbat ibilaldiren berri emanen du gaur, hilak 22, arratsaldeko 20:00etan, Nafarroako Kirol Elkartean (Jarauta, 78). Hitzaldia entzuteaz gain, diapositibak ikusteko beta izanen da.

Iruñea: Mendiari buruzko euskarazko hitzaldi zikloa antolatu du Iruñeko Udalak. 25ean Iñurategi anaiak izanen dira hizlari, eta 26an Natxo Barriuso. 27an *Mendian eta aire libreko ekintzetan lan ekintzak* gaiari buruzko mahai ingurua izanen da.

Atarrabia: Herri Meza izanen da bihar, hilak 23, arratsaldeko 18:00etan, herriko elizan. Atarrabian Herri Meza egiten den lehenbiziko aldia izanen da.

nafarkronika

Fermin Erbiti

Udazkeneko ekaitza

Udazken hotz eta euritsuan baten bat ekaitzak bete-betean harrapatu du. Euritakoa etxean utzi, euria eginen zuelakoan... eta, bat-batean, trumoiak aditu, aterpe bila hasi eta euritakorik ez, eta ezta euritakoa utziko dionik ere.

Mundua aurrera eta atzera ez, baizik eta bueltaka dabilela begi bistan dago. Buelbaka, behin eta berriz, erreferentzi puntu batzuen inguruan, hortik ihes egitea ezinezkoa balitz bezala.

Garai bateko lasaitasun giroaren ondorio omen dira azken urteotako ekaitzak. Orain ez da batera eroso hain lasaiak ziruditen egoeretan itzuli beharra, geroak erakutsi baitu normaltasunez mozorroturiko urteetan lapurketarik handienak egin daitezkeela. Horiatar bueltatzea agintarien gustokoa ez bada ere, guk, zergaordaintzaileok, autobiderik garestienak ordaindu ditugunok, horretarako eskubidea dugula iruditzen zait.

Bitxia da horrelakoetan politikoei gehien gustatzen zaien soluzioa: ekaitza sumatu bezain fite euritakoa hartu eta baten bat euritakorik gabe utzi behar bada, tira, zer eginen diogu.

Gaur egungo ekaitzak zergatik, nola eta noren laguntzaz gertatu ziren eta hori berriz gerta ez dadin harturiko neurriak azaltzen hasia, agian, gehiegizko eskaera litzateke demokrazia lau urtean behin botoa eskatzea dela uste dutenentzat.

Buelbaka dabilen herrian badira, ordea, bertze erreferentzi puntu askoz interesgarriagoak iruzurra, Hernanikoa eta hain gure ditugun bertze guztiak baino. Udazken hotz eta euritsuak dakarkigu hoberenetakoa: Durangoko azoka. Urtetan idazlerik eman ez duen lurralde honek baditu euskal literaturan punta-puntako ordezkari batzuk, berrogei urtetik beherekoak denak eta, beraz, libururik hoberenak oraindik idatzi ez dituztenak. Euskal Herriko liburu azoka nagusian nafar idazleen presentzia gero eta handiagoa izateak erakusten du arlo horretan aitzina egin dugula.

Badakit idazle gehienak jo ta ke ari direla hurrengo lanetan. Baina horietako batek ideien bat behar izanez gero, jakin dezala, noizbait, jasaten ari garen ekaitza argitzen bada, hortxe izanen duela nobela ona idazteko gaia. Heldu den urteko azokan salduena horixe litzateke.



asteko pertsonaiak



Jose Mari Bakero
Futbolaria

■ Goizuetako futbolari bikainak gero arte esan dio Barcelona futbol taldeari. Gero arte esan dio, eta ez agur, bueltatzeko asmoa baitu. Ez da Barça futbolari lanetan aritzeko itzuliko, jakina, baina bai teknikari gisa lan egiteko. *Can Barça*-ra itzuli aurretik, gutxienez hiru denboraldi emanen ditu Mexikoko Veracruz taldean, Atlantikoaren beste ertzean bere trebetasuna eta, batez ere, kemena erakusten. Joan den asteazkenean azkeneko jantzi zuen elastiko urdin eta gorria, Valladoliden aurkako norgehiagokan. Gol bat sartu zuen, eta zelaia utzi zuenean Camp Nou bildutako guztiak txalo beroak jo zituzten. Goizuetako futbolari bikainak merezi zuen omenaldia jaso zuen.



Rafael Moneo
Arkitektoa

■ Tuterako arkitektoak Nafarroako Artxibo Orokorra egiteko prestatzen ari den proiektua aurkeztu zuen atzo eguerdian. Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordean. Rafael Moneo arkitektoak esan duenez, proiektua sei hilabete barru burutuko du. Atzo bertan, arratsaldean, Navarra Foro XXIren eskutik, *Arkitektoaren zeregina*, 30 urtetako lanaren balantzea izeneko hitzaldia eskani zuen Aitzoaingo hotel ezagun batean. Moneok munduko arkitektura saririk garrantzitsuenak jaso ditu aurre: Pitzker saria eta Arkitektoen Nazioarteko Batasuneko urrezko domina. Halaber, aurrean Frantziako Arkitektura Akademiako urrezko domina eskuratu du.

ahaztu gabe!



Zinema eta musika

Iruñea: Zinema mutua gustuko baldin baduzu, eta piano musika zuzenean entzutea gustatzen bazaizu, hurbil zaitez heldu den asteazkenean, hilak 27, arratsaldeko 20:00etan, Gaiarre antzokira. Tod Browningek 1925. urtean zuzenduriko *Hirukote zoragarria* filme mutua pantailaratuko dute. Browningen obra irudimen handikoa da, eta bitxienetako bat zinemaren historia osoan. Gizatasunaz zuen ikuspegi ezkorra ederki islatu zuen bere filmeetan, ironiaz garrazaz beterik. Haren filmea eskaintzen duten bitartean Josetxo Fernandez de Ortega musikariak pianoa joko du. Nafar Ateneoak antolatu du kultur ekitaldia, Saide enpresarekin elkarlanean, zinemaren lehendabiziko mendeaurrena dela kausa. Browningen filmearen ingelesezko jatorrizko tituluak pantailaratuko dituzte, gaztelaniaz azpititulatuta. Josetxo Fernandez de Ortega piano-joleak programa bat konposatu du bereziki asteazkeneko emanaldirako. Ateneoak aurreantzean Josetxo Fernandez de Ortegaren musikaz lagundutako Browningen beste bi pelikula mutu pantailaratzeko asmoa dauka.

adi!

Euskalerrira Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, *Zokobetailu* goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara *Karakola segi hola* gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Astean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarrizketak.

Irati Irratia FM 107,7n eta 103,8n

Ostiralero *Txirristi-Mirristi* haurrenzako saioa 12.30etan.

Aranguren

Inausketan pilatzen diren hondarrak bildu ahal izango dira laster edukiontzietan


Arangurengo Udalak proposatuta Mutiloagoitin eta Mutiloabeitin paratuko dira

Arangurengo Udalak eskaera egin berri dio Iruñerriko Mankomunitateari, inausketatik pilatzen diren hondarrak —belarra, abarrak eta abar— biltzeko edukiontzia bizilagunen eskura jar ditzan. Halaber, Udalak hala proposatuta, konpostari buruz ikerketa berriak egingo ditu mankomunitateak heldu den urtean.

Erredakzioa / Iruñea

BIRZIKLATZEARI buruz informazio gehiago emateko jardunaldiak antolatu ditu Arangurengo Udalak hurrengo egunetarako, eta gaur izango da lehen-dabiziko ekitaldia Mutiloabeitiko eskola publikoan, 20:00etatik aurrera. Pilar Urabaien geologoak, Jesus Arbizu ingeniariak, Maisa Fernandez teknikariak eta Jurrmendiko Mankomunitateko ordezkari batek aztertuko dituzte Arangurengo ezaugarri fisiko orokorrak eta hondakinak naturan uzteak sortzen dituen ondorioak.

Hondakinen bilketa eta transformazioa da alderdi industrializatuaren ingurugiroan kalte handienetakoa eragin dezakeen jardura. Hondakin hauek kontrolrik gabe utziz gero arazo ugari azal daitezke —uren kutsadura, suteak eta karruskariak ere— eta horri aurre egiteko badaude jada Iruñerrian bertan erabiltzen diren birziklatze sistemak. Esate baterako Aratzuriko araztegiak, Iruñerria osoan egiten den bilketari esker, bereizi egiten dira



Nafarroan esperientzia ugari daude birziklatzearen inguruan.

hondakin organikoak eta besteak, eta horiekin egiten da gero ongarri gisa erabiltzen den konposta.

Horrekin nahikoa ez eta Arangurengo Udalak proposamena egin dio Iruñerriko Mankomunitateari bide horretan gehiago iker dezan, kalte ekologikoak gutxitu eta onura gehitzearen. Eskarari erantzuteko Mankomunitateak 25 milioi pezetako aurrekontua onartu du heldu den urterako (milioi bat libera), konpost honi buruz azterketa gehiago

egin ahal izateko. Halaber, Mutiloabeitin eta Mutiloagoitin jarriko diren edukiontzia berrietan bilduko dira inausketak sortzen dituen hondarrak.

Gaurko hitzaldiaren ondotik datorren ostiralean, hau da, hilaren 29an, Carcarreko Hondakin Solidoetarako plantara bisita egingo da. Jurrmendin martxan paratu den zaborren bilketa eta konposta egiteko sistemaren bertan ezagutu ahal izateko. Hilaren 30ean, larunbatean, Gongorako plantara izango da bisita, ondoan

izan arren Arangurengo bizilagun askok oraindik ez dituztelako ezagutzen instalazioak. Abenduaren 14an ingurua garbitzeko irteera egingo da Aranguren bertan, eta Ilundaingo Haritz Berri eskolara bisitaldia egingo da, ezagutzeko hango Natura-Gelan egiten den lana.

Jardunaldi hauek Arangurengo Udalak antolatu ditu eta Nafarroako Gobernuo Ingurugiro, Lurralde Antolamendu eta Etxebizitza Sailaren laguntza izan dute. X

Gares

Kultur zikloa heldu den astean hasiko da

Hitzaldiak, antzerkia eta kontzertuak izanen dira, eta herri afaria antolatu du Euskara Zerbitzuak

Erredakzioa / Iruñea

EUSKARAREN V. Kultur Astea ospatuko da heldu den astean herrian, bertako Udalak herri-tarrek elkarlanean antolatuta. Joan den asteazkenean zabaldu zen Euskara betiko mintzoa izeneko erakusketa ibiltaria, eta datorren astean hitzaldiak, antzerkia eta kontzertuak izango dira udaletxeko erabilera anitzeko aretoan.

Erakusketaren asmoa da hizkuntza zaharra guztion ondarea den ustea zabaldu eta indartzea, eta Hizkuntza Politikarako Zuzendaritza Nagusiak antolatzen duen hirugarren urtea da hau. Hizkuntza eta kulturen elkarbizitza. Euskal toponimoen mugak,

Euskara eta Nafarroako Erresuma, Euskara eta Eliza, Deseuskalduntze prozesua eta Itxaropenez betetako etorkizuna izeneko eremuak ikus daitezke hilaren 29ra arte zabalik egongo den erakusketa honetan.

Heldu den astelehenean solasaldia izango da Reyes Ilintxeta Euskalerrira Irratiko esatariarekin, eta Nafarroako irratigintza euskaraz izena izango du hitzaldiak; iluntzeko 20:00etan hasiko da. Asteartean, Xamarrek emango du hitzaldia Orhipean, Gure Herria ezagutzen liburuaren aurkezpena egiteko, 20:00etan hasiko da; eta asteazkenean haurrentzat euskarazko antzerkia izango da arratsaldeko bostetan Garesko Eskolan. Iruña



Korrikari buruz hitzaldia izango da ostegunean.

Teatro taldeak, Jaberik gabeko zopaontzia lana aurkeztuko du.

Ostegunean, hilak 28, AEK-k antolatzen duen Korrikaren inguruan hitzaldia emango du Txemi Apaolaza antropologo eta Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakasleak, gaztelaniaz, (Zer eta zertarako Korrika?); ostiralean gazteentzat kontzertumintzaldia izango da Iñigo Gokoetxendiarekin: Euskal Herriko musika gaur egun gaia aztertuko du.

Egun berean, kultur asteari amaiera emateko, Izarbebarreko euskaldun eta euskaltzaleen afaria antolatu du Euskara Zerbitzuak. Izena emateko bertara deitzea besterik ez da: 34 00 07 telefonora. X

Iruñea

5.000 ikaslek hartuko dute parte eski kanpainan

■ Datorren urteko ilbeltzaren 6an hasiko da Izaban eta Otsagin

Erredakzioa / Iruñea

OTSAGIKO ETA IZABAKO udalek, azken hamahiru urteetan bezala, aurten ere ikastetxeetako ikasleentzat eskia egiteko kanpaina antolatu du. Nafarroako Gobernuaren dirulaguntzarekin kanpaina berrian 5.000 ikaslek eskia ikasteko edota praktikatzeko aukera izanen dute. Guztira, 119 ikastetxek hartuko dute parte: % 70 publikoak eta gainontzekoak pribatuak.

Aste zuriak izenarekin ezagunak, kanpaina heldu den urteko urtarrilaren 6an hasiko da eta apirilaren 11ra arte iraungo du. Osotara bost eguneko —igandetik gauetik ostiral arratsaldera— hamabi aste izanen dira. Parte hartuko duten ikasleak izanen dira: Oinarrizko Hezkuntzako seigarren kurtsoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoak. Era berean, ezindu fisikoek, psikikoek eta gorrek ere izanen dute eskia egiteko parada, tokien % 5 eurentzako baitira. X

Burlata

Mikel Laboak kontzertua eskainiko du gaur

■ Kantaldia gaueko 10:30etatik aitzina izanen da Elizgibela kiroldegian

Erredakzioa / Iruñea

BURLATAKO Udaletxeko Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen duen Udazkeneko Kultur Zikloaren barruan, Mikel Laboak abeslariak kontzertua eskainiko du gaur. Kantaldia gaueko 10:30etan hasiko da Elizgibela kiroldegian. Sarrerak 500 pezeta balioko du eta ordu bat lehenago izanen dira salgai txarteldegian bertan. Laboak aspalditxoan kantatzen ez badu ere, urte askotan egindako abestiak gogoratuko ditu Burlatan.

Udazkeneko Kultur Zikloa joan den ostiralean hasi zen eta datorren astearterarte, hilak 26, iraungo du. Egun horretan Iruña Antzerki Txikia taldeak Jaberik gabeko zapaontzia lana taularatuko du Atarrabiako zinematokian. Michael Ende idazle alemaniarren ipuin batean oinarritutako emanaldi hau goizeko 11:30etan izanen da. Antzezlanaren berriz emanen dute arratsaldeko 3:30etan toki berean. X

Nafarroako euskalkiak zertan ote?

Talde bat hasia da tokian tokiko hizkeraren inguruan gogoeta egiten, bazterrean utzi ote den kezkatuta

Herrialdeko euskalkiei buruzko gogoeta egiten hasia da Nafarroako euskaltzale eta aditu talde bat, batuaren alde egindako ahaleginean, bidean, tokian tokiko hizkera bazterrean utzi ez ote den kezkarakin. Abiatu besterik ez dira egin: zein diren bizirik dirauten euskalkiak, zein den beren egoera eta zer neurri har daitezkeen zehaztu nahi da lehenik eta behin, gero pauso handiagoak emateko.

Irene Arrizurieta / Iruñea


ORAIN ARTE euskaltzaleen eginahal nagusia euskara batua izan da, berau finkatzea eta gizaratean errotzea. Ahalegin horrek, baina, herrialdean dauden hizkera edo euskalkiez eta beren ezaugarriez ez kezkatzea ekarri du. Orain, berriz, badirudi euskararen tokian tokiko altxorak inarrasten hasteko gogo bizia dagoela.

Nahi horri eutsirik eta Nafarroako euskalkiak pairatzen ari diren galeraren kezka bultzaturik, Eusko Ikaskuntzako Hizkuntz eta Literatura sailaren inguruan lanean hasi dira. Oraindik bere eginkuzuna zehaztu ez badute ere, orain arte euskalkiei buruz zegoen jarrera gainditua dagoela uste du Eugenio Arraizak, asmoaren partaidea eta Nafarroako Eusko Ikaskuntzako idazkariak. «Euskalkien inguruan lanean aritu direnak nahiko bakanak izan dira, eta beti bakarka aritu dira, bakoitza bere aldetik. Ikerlanetan edo azken lekukoekin hitz egiten, azken urratsak biltzen, bai Erronkarin, Zaraitzun... lan polita eginez. Alde horretatik, Nafarroako euskalkien egoera nahiko landua izan da, ez era sistematikoan, baina lana egin dago».

Bestalde, duela hamar-hamabost urte lantzen hasi ziren tesiak. Horren lekuko dira Inaki Caminok aezkerari buruz egindakoa eta Orreaga Ibarrek Ultzamako eta Basaburuko euskaraz jorratutakoa.

Beraz, esan daiteke Bonaparte printzeak XIX. mendean egindako euskalkien sailkapena hankaz gora dagoela, batzuen batzuk desagertuak edo desagertzear daudela. Hau aintzat hartuz, Eusko Ikaskuntzan egindako lehenengo bileran talde bat osatu zuten, jendea zertarako dagoen prest eta lan egiteko dauden baliabideak zehazteko. Aurreneko kontaktuan bi alor izan ziren mintzagai: batetik, bizirik dirauten euskalkiekin zer egin, eta, bestetik, eskualde bakoitzean ikusi beharko litzatekeela gauzak nola dauden eta zer neurri har daitezkeen.

Bi ardatz horiek mahai gainean jarri badira ere, euskalkien ezaugarria, adituen artean ez bada behintzat, murrizta da, eta beharrezkoak diren azterketa sakonak egiteko ez dago prestakuntzarik. Hau dela eta, Orreaga Ibarra filologo eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslearen iduriko, unibertsitateak lan hori egin dezake. Jadanik harremanetan jarriak dira Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle batzuekin —Inaki Camino,



besteak beste— eta datorren urteko martxoan euskalkiei buruzko mintegiak prestatu nahi dituzte Iruñean, batez ere interesaturik dagoen jendea trebatzeko.

Ildo honetan, aintzat hartu behar da Nafarroan dauden euskaldunen erdiak Iruñerrian direla eta, gutxienez, euskalkien egoera eta sailkapena ezaugarri beharko luketela. «Bizirik daude, bai ikertuak bai ikertu gabek, zaindu egin behar direlako».

Iruñean ezezik, eskualdeetan euskararen egoera eta tokian tokiko hizkera berreskuratzeko taldeak ere badira hainbat proiektuen inguruan —Doike euskara taldea, Ttipi-Ttapa eta Guaixe aldizkariak—. Orain arte gertatu den elkarren arteko ezaugarria eta sakabanaketa gainditu nahirik aurreneko bilerak beste bat ekarri zuen segidan. Duela hamabost egun bildu ziren Sakanako eta Baztan aldeko jendearekin eta taldeekin, eta bai Doike euskara taldekoek eta bai Guaixe-ko aldizkariok beren asmoen eta egoeraren berri eman zuten. «Nahiko interesgarria baina ezberdina. Adibidez, Doikekoen helburua ez da bertako euskalkia bultzatzea, baizik eta euskara goi mailerara heldaraztea; bailaran ez duen prestijiozko maila hori lortu nahi dute euskararentzat. Beren kezka nagusia da euskararen erabilera, eta ez dute hausnarketarik egin euskalkien inguruan. Praktikan mantentzen dela diote, baina ez dute plangintza berezirik sartu,

egin dugu gainerako herriek», dio Josema Leitzak, Arbizuko Euskara Zerbitzuko partaidea eta eratu berri den taldeko kidea. Horrelako lanik ezean oso material oinarrizkoa sortu duten arren, abiapuntu eta eredu gisa balio dezake. «Sortu dugu oso oinarrizko materiala eta sakondu beharra dago, hau hasiera besterik ez da».

Lehen erronka: gogoa eta nahiak bateratzea • Asmoak eta gogoa badiren arren, euskalkiak aztertzea eta interesatuen gogoa eta helburuak lotzea ez dela erraza izanen uste dute horretan hasiak direnek. Arraizaren irudiko, argi dago ez dela erraza izanen «elkarrekin» plangintza bat antolatzea. «Baina, hala ere, denok ikusten dugu egiten ari diren ahaleginak koordinatu egin behar direla. Hurrengo bilera urtarrean izanen da. Taldea eratzten ari da eta datorren urtean NUPen honen inguruan mintegia antolatzeko gogoa badago».

«Oraindik ez dakigu zein bide hartu, arautegi estu edo oso landua ezin da inposatu, baizik eta adostasunarekin jokatu behar dugu, bakoitzak nahi duena egin ez arren». Beraz, erronka da hizkuntza «zerraldo» moduan ez baizik «bizirik» iraunarazten saiatzea: «Nola aberastu dagoen euskara, euskalkietan gordetzen diren berezitasunekin. Berez batuak finkatu duena da ortografia, aditz sistema eta auskalo zer mailatan erabiltzeko modua. Baina badaude galtzen ari garen hizkuntzaren beste hainbat erregistro. Batua sartu delarik, pobretzen ari da euskara», deritza Arraizak. Uste honetakoak ez da bakarrik Arraiza, Leitzak ere euskarak pairatzen duen pobretze eta homogeneizazioari aurre egin behar zaiola dio. Gainera, ez du uste euskararen pobretasuna batetik datorrela, baizik eta erdal kulturaren barneratzeak. Hau guztia aintzat hartuz, oso garrantzitsua da oreka lortzea. «Nolako erabilpena egin behar dugun eta euskalkiak zer tokia hartu behar duen eta nola zaindu behar den praktikan egin behar da».

Hau guztia hasiera besterik ez da, Nafarroan dauden euskaldunen hizkerak hobetzeko eta, ahal den heinean, berriz ere erabiltzea bultzatzeko.

Hori, baina, garaipena izanen da. Horren aurretik patxadaz hartu beharreko hainbat lan eta eztabaida dago. «Ez gaude larrituak ez oso kezkatuak; ez dugu presarik, beste helburu batekin ari gara euskararen etorkizuna planteatzen», gaineratu du Arraizak. X

dio Arraizak. Sakana aldean, berriz, egoera eta gogoetak bestelakoak dira.

Eugenio Arraiza:

«Oraindik ez dakigu zein bide hartu, ezin da arautegi oso estua inposatu, baizik eta adostasunean jokatu behar dugu»

Josema Leitzak:

«Etxarri-Aranazko Ziriketzen taldea bertako euskararen estilo liburu egiten ari da. Grafia finkatua dago eta orain bertako hizkuntzaren ezaugarriak falta dira. Horren harira egingen dugu Sakanako beste herriek»

Orreaga Ibarra:

«Bata eta bestea ez dira kontrajarriak, baina batua unibertsitatean, Administrazioan erabili behar da, eta euskalkia herri komunikabideetan, familian eta lagunartean»

Guaixe aldizkaria: euskalkiaren aldeko apustua • Euskarak bizi ahal izateko batua edo hizkuntza estandarra behar duela inor gutxi ukatzen du egun. Hala ere, batua lortzeko egin den ahalegin horrek tokian tokiko hizkerak askotan bere eremua galtzea ekarri du. Ildo honetan, bakoitzak bere esparrua baduela uste du Orreaga Ibarrek. «Bata eta bestea ez dira kontrajarriak, baina batua unibertsitatean, Administrazioan erabili behar da, eta euskalkia herri komunikabideetan, familian eta lagunartean». Saio honetan Sakanako Guaixe aldizkariak egindakoa interesgarria da. Hasiara batean bakoitza bere herriko hizkeran idazten hasi zen, artikulu batetik bestera grafia, hitzak aldatzen ziren, eta ez zegoen hura irakurriko zuenik.

Arazo hori zela-eta, erabaki bat hartu beharra zegoen, eta batura jo edo euskalkiak erreferentetzat hartzeko eztabaidan, euskalkiaren aldeko apustua egin da. Bidea Etxarri-Aranazko Ziriketzen taldeak jarri du. Taldea grafia arautzen hasi zen, eta herri guztietan baliagarria zen oinarrizko grafia finkatu du. «Ziriketzen taldea bertako euskararen estilo liburu egiten ari da, nahikoa aurreratua dute gainera. Grafia finkatua dago, eta orain zailagoa izanen da sintaxia eta bertako hizkuntzaren ezaugarri nagusiak finkatzea. Gero, horren harian

Hizkuntzaren
oinarrien bila

Euskara bat bera da baina adar asko ditu

iritzia

Xamar

EUSKALKIEN inguruan sortu den kezka eta, bide batez, bultzatzeko eta berreskuratzeko nahia aintzat hartuz, euskaraz lanean aritzen diren alor desberdinetako pertsonen iritziak jaso nahi izan ditugu. Aingeru Epaltzari, Joxemanuel Irigoieni eta Iñaki Caminori honako hiru galderok luzatu dizkiegu:

- 1.- Badu zentzurik euskara sailkatzeak edo euskara guztietan bera da?
- 2.- Ahalegina egin behar da euskalkiak bultzatzeko edo zerbait artifiziala da?
- 3.- Euskalkiek jasaten duten galerak etenik izanen du edo etengabe goaz batuerantz, estandarizaziora?



◆ Aingeru Epaltza ◆

Itzultzailea

«Euskalkiei bultzada ematea euskarari berari ematea da»

1.- Sailkapena egina dago nahiz eta orain berritzen ari diren. Euskara bera da, baina euskalkiak ere badira. Errealitatea bat da, baina euskara oso eremu zabala da. Garbi dago erabilera eremuak ere badirela. Euskalki hutsak —ez hiztun batek egiten duena— bere eremu konkretua du mintzatuaren zein idatzian, orduan ezin esparru guztietan tratamendu bera eman. Ildo honetan, euskalkiaren eremua etxea izan behar du eta hori oso inportantea da, komunikabideetan ailegatzeko bada ere, primeran, baina etxetik hasi behar da.

2.- Ez dut uste artifiziala denik. Euskalkiei bultzada ematea euskarari berari ematea da. Ez daude gauzak hain ongi euskara bat eta bera erabiltzeko eta hori egiten bagenu, seinale txarra litzateke baturatze horretan bidean gauza asko geratuko litzatekeelako. Batua defendatzeko izanen da eta bide bakarra hartuz gero jende gehiegi alde batera uzten da eta pobretze bat gertatzen da. Hori lortuko da helburuak finkatuz eta euskalkiak indartuz. Honetan zeresan hadia du irakaskuntzak. Irakaskuntza bultzatzen ari den euskara oso estandarra da eta horren emaitza sasieuskara da. Hiperbatu txatxu hau ez da eus-

kara, baina bada parte bat. Horren gainean irakaskuntzan dabilenak zerbait egin beharko luke. Ildo honetan, nik esanen nuke euskalduntzeak neurri handi batean porrot egiten duela, emaitzak ez dira jotaka haste-koak. Erabiltzen eta hartzen den eredu ez ardo ez ur horrek badu zeresanik ondorio kaskar horietan: erdaldunak ez dira euskalduntzen eta euskaldun askoren euskara pobretzen doa.

3.- Baturatze prozesuaren emaitza desagertzen prozesua da. Tokian-tokiko berezitasunei gertatzen zaie, ahultze bat edo erabilera murriztagoa. Hala ere, denetarik ereduak badaude, adibidez Italian edo Alemanian. Hango dialektoek badute literatura anitz eta aberatsa. Euskalkien desagertzea baino gehiago, alderatze eta pobretze bat dago eta horrek euskalkiekin bultzatzearekin zerikusia du. Euskararen pobretasunak kezkatzen nau ni, salto ikaragarria dago gu eta ondorengoan artean eta prozesuak nora garamatzen zaila da erratea.



◆ J. M. Irigoien ◆

"Ttipi-Ttapa"-ko kazetaria


«Bizirik daudenak ez zokoratzeke ahalegin berezia egin behar dugu»

1.- Euskarak sustrai bera du. Euskalkiek hizkuntza orokor baten korpus oso bat osatzen dute beste erdal hizkuntzetan gertatzen den bezala. Askotan euskaldunok uste dugu gurean bakarrik daudela desberdintasunak, baina gaztelanian ere diferentzia kozkorra ikusten da Hego Amerikako gaztelaniarekin eta Espainiako Estatuan egiten denarekin. Sailkatu baino gehiago ezaugarriak bildu eta sailkatzea positiboa dela uste dut, betiere estandarizazio prozesu baten barruan ongi txertatzen badira.

2.- Euskalkiak bultzatzea ez dut uste sekulan ere artifiziala denik. Uste dut ahalegina egin behar dela estandarizazio prozesu horretan sakontzeko, baina euskalkiek sortzen dituzten erreferentziak galdu gabe. Uler-tu behar guztiek osatu egiten du-

tela korpus amankomun bat eta hori erreferentzia hurbilek bete egiten dutela, bizi diren erreferentziekin gainera. Ez dut esango gelditzen den hizkuntza estandarra denik, hori hasiera batean izan zen. Denborak eta erabilerak bere pisua markatzen du. Hala ere, nik ez dut uste batak besteari galera egiten dionik.

3.- Seguraski indartu egiten da estandarizazioaren aldeko prozesua. Komunikabideek eta erabilera publikoak, hizkuntzak estatus soziala hartzen duen neurrian, nabarmenki indartu egiten dute euskara batuaren izatea bera, eta alde horretatik euskalkiak galtzen joanen dira seguruenik. Hala eta guztiz, ahalegina egin beharko litzateke gordetzeko, aberastu egiten duelako estandarra. Apustu berezi bat egin beharko litzateke ez zokoratzeke bizirik daudenak. Euskalkia bera ezagutu beharko litzateke. Eskoletan tokian tokiko euskalkiak ezagutzea, eta ez bertakoa eta batua bizkar eman da. Erabilera finkatuz eta lexikoa bilduz. Mundu oso bat dago hizkuntzaren bitartez gauzatzen dena. Euskara txikiak handiago bat osatzen ahal dutela, beste bat handiagoa.



◆ Iñaki Camino ◆

Dialektologia

«Oraingoz, Nafarroako hizkerok euskara estandarra indartsu den tokietan gorde daitezkeela ematen du»

1.- Euskal dialektologia aski gibelaturik egon da eta ematen du azken honetan xuxperten ari ote den. Nafarroaren kasuan hizkera edo dialekto ugari ego-teak badu muntarik. Nafarroa garaian anitz jende interes amateurra du gauza hauetan. Euskalkien sailkapenaren gaiak inolako interesik ez balu jende hori zozoa dela esaten ariko ginateke. Uste dut jende horiek guztiak ohartzen direla hizkuntzak alderdi humanistiko bat baduela, ohartzen direla hizkuntza iraganeko giza talde desberdinen gora-beheren aztarnategi aberatsa dela. Ibar bateko jen-

deek gizarte eta geografi ibilera batzuk izan zituztela hizkuntzak islatzen duela. Niretzat giza talde bat partaide den gizartearen iraganeko atalak historiarekin eta geolinguistikarekin uztartzea ikergai dinamiko, dialektiko eta erakargarria da arrunt. Hori da euskara sailkatzeari ikusten diodan xarma zientifikoa. Euskararen ezaugarri dialektalen araberrako ikuspegi zientifiko sezesionistak ez ditut batere gogoko. Aezkoan esaterako, *El vasco de aquí, el del valle* delakoaren aldeko jarrera eta batuaren aurkakoa dutenak dira euskara eta euskaltasuna saldu dituztenak. Aezkoan euskara oro har maite dutenek —adibide zehatzak eman daitezke gainera— besteek bezainbat maite dute ibarreko hizkera eta beren hurrek euskara batua ematen dute gehienbat. Aezkoako mintzoa etxean ikasteko aukerarik izan ez dutenez, egun arras gutti dira Aezkoako mintzoa ikasi duten haurrak eta berau galdurik euskara estandarera jotzen dute ezinbestean zorigaitzez, eskola garaitik aitzina. Saioren bat izan den arren, eskolak ezin izan dio arazo honi aurre egin. Egundak artifiziala litzateke Aezkoan eskolak bertako euskarari eustea, hizkuntzaren katea etenik baitago etxe gehienetan. Den den, garbi dago euskarak Aezkoan batuaren bidetik duela etorkizuna.

2.- 3.- Nafarroako berezko hizkeren galera honek etenik duen edo ez duen eta nolakoa dukeen jakiteko, euskararen gizaritzeko egoerari buruzko diagnostiko eta prospektiba azterketa sakonagoak beharko genituzke. Estandarizazioak 28 urte besterik ez baitu Euskal Herrian. Oraingoz, ematen du euskara eguneroko hizkuntza gisa indartsu dabilen eremuetan soilik gorde daitezkeela Nafarroako hizkerok, eta leku horietan ere dagoeneko ikusten dira eskolaren eragin estandarizatzaileak. Ikusiko dugu etorkizunean zein hizkera eredu nagusitzen den hogeita bost urte barru Iruñean. Nik orain ez nuke ziurtatuko molde jakin batekoa edo beste-koa izanen ote den. Eman dezagun Europako adibide bat. Viena batean, esaterako. Etxean neskatxei Austriako alemaniera estandarra erakusten zaie. Mutikoei, berriz, Vienako bereko alemaniera trakets fama duena. Guztien artean goranahienak direnek, ordea, Alemaniako alemaniera estandar jaso dute maiteen dituzten erreferentzi taldeen jokabideen taldeetara hurbiltzeko. Zein dira egun Nafarroan euskara eta beraren hizkera desberdinak inoren gizaritzeko erreferentzia sendo?

Emoixtaxux
muxutxuek,
maitie...

ORAI DELA hogeituroteko (jada-nik?) giroan inor gutxiak pentsa zezakeen 1996ko uda kanta bizkaieraz emanik izanen zela. Ondorean urak bere bidea egin du, baina tenore hartan erranak eta eginak ditugu pairatzen oino ere. «Tol Batuaren kontrako gibelkoi horietariko bat!», du norbeitek pentsatuko. Ez ba, mintzo batu baten beharrea gaude duikabe, baina Batua karrikaratu zuten gisarekin ez niz sekulan akort izan.

Batuaren oldartea (histerismorainokoa batzuetan) zerbeit baratu delarik (unibertsitatean *Inkari* bezalako gauzak egiten dira!) erreposki bada, sutsuenak hasiak ere dira bertzelakaten, bai eta *mea culpa* apal zemeit plazaratzen. Fun-tsean, hobeki entendatzen da (?) Euskararen funditzaileak ez direla euskalkiak, erdarak beizik; batuak eta euskalkiek maila desberdina dutela betetzen (edo bete behar bedere), alta ez zen zaila horren ikustea.

Erdarak nonbeiteko mintzamoide bat hil urranera eramanez ondorean, ahul baina naturalki sortzen denari Batua ematen dakote sendagai, dirauena indartu ordez; hainbertzeraino non alfabetatzea eta Batuaren irakustea ber gauza bilakatu beira. Eta ez dira hala, arrot diferentek beizik. Biak elkarren osagarri badira, behar da xakin noiz da baten ala bertzearen itxantea.

Eta berant heldu bagira, batu hortan tokiko oinarri zerbeit bedere txerkatu beharko litzatekeelakoan nago. Mingarri zait, arras, Aezkoako haurrei (Euskaraz elekatzen dutelarik) «Itxaron! Besteak esan du ondo daudela kalean», aditza, konparazione; oino bertako solasaren oihartzuna bazterretan aditzen dudalarik, haur hoiek erdaraz ari direla iduritzen zait (espero dut ez nizela harrikatuturik izanen hau eskribitzeagatik).

Bertzerik faltan, eletalde montio izan gabe, zerbeit. Aspertu artio kontu deizke kasu mingarriak, guziak egoeraren seinale. Hontan ere irakusle, maixu edo erriet gisa (gabeko eskolatik hasirik haurtzandegireino) dabilzanak birziklaje xume baten beharrea bide daude, ikuspegi aldatzeko beizik ez bada.

Derradan, bidenabar, hau dela kausa neronek gisa hontan, mendi kutsu batekin, eskribitzeko Nafarkarian (irakurlerik ez izanik ere): hil urranari errespetoaren atxikitzeke eta nauronek erabiltzeko, baratzen den bide bakarretarikoa beita. Hain zuzen eta... ez litzake inor gehiago animatuko zerbeiten emateko gauren Nafarkari hontan bedere?

...Ta ez eixu pentsa ez dela erreza gauza politzek pentsatzie.

Xanti Begiristain

Euskararen unibertsoa

■ Hauxe duzue Iñaki Zabaleta Urkiola irakasle eta idazle leitzarrak orain dela egun gutxi Iruñean eman zuen hitzaldiaren izenburua. Aitortu beharra dago behizat, goiburu horrek harridura eta jakinmin handia sortu duela dagoeneko pertsona askorengan. Hitzaldian ez ginen jende asko izan, baina hala eta guztiz ere, niri oso interesgarria suertatu zitzaidan. Egia esan, izenburu horrekin ez nuen ideiarik ere zeri buruzkoa izan zitekeen, baina beste alde batetik, zerbaitek esaten zidan seguru asko probetxugarria izanen zela, eta hola gertatu zitzaidan.

Hemen ez dut asmorik kontatzeko han esan zen guztia, alde batetik ez naizelako sentitzen gai, eta bestetik, hitzaldi hartan mintzatutako guztia artikulu honetan laburtzea ezinezkoa delako, Nire nahi apal bakarra ideia nagusi batzuk transmititzea baino ez da.

euskara bere departamentuan mugatzearekin, baizik eta euskarak osotasun bat egiten duela. Ez da, alegia, gorputz baten zati bat bakarra baizik eta gorputz osoa. Nahiz eta pertsona txikia eta trakets samarra izan, euskara pertsona osoa da, hots, unibertso bat osatzen du, eta gainerako hikuntza handi guztiek dituzten eskubide eta begirune berberak merezi ditu.

Hasieran esan bezala, zaila eta konplexua da, argi eta garbi ideia guztiak gardentasunez azaltzea, horregatik gomendatzen diot interesa duen orori, aukera duenean txosten hori astiro-astiro irakur dezan, edo bestela aurkezpen-hitzaldiren batera joan dadila.

Iñakik, besteak beste, honako adibide hauxe jarri zuen bere azalpena ulergarriagoa izan zedin, hau da, Euskal Herri honetan hiztegi tekniko bat euskaraz egin behar denean, beti hartzen da ho-



Iñaki Zabaletaren arabera gai hau, euskararen unibertsoarena alegia, hasi ziren lantzen pertsona batzuk orain dela urtebete baino gehixeago. Biz-pahiru hausnartze saio serio egin ondoren uda iritsi zen. Urtaro beroan ere zenbait pertsonak jarraitu zuten pentsaketan ideien inguruan. Ehun gizaseme-alabak baino gehiagok parte hartu dute bilera horietan.

Horren ondorioz txosten bat gauzatu dute. Idazki horrek hiru atal ditu: a) Gogoeta, b) Eragin soziala eta c) Plangintza.

Momentuz gehien landu dutena lehena omen da, eta beren asmoa, txosten horren mila bat kopia egin eta interesa dutenen artean banatu eta ondoren kritikak, ideia berriak, iradokizunak, ekarpenak eta abar jasotzea da, egitasmoarekin aurrera jarraitzeko indar gehiago eta hobeagoarekin.

Funtsezko ideia ez da berria baina bai berritua, zabaldua eta ñabardura gehiagorekin. Azken batean adierazi nahi du, ez dugula konformatu behar

rretarako Euskara Saileko dirua, baina berak arrazoitzen zuen kasu askotan hiztegi horiek ez dutela batere zerikusirik Kultura edota Literatura Saila ulertzen denarekin, beraz, mota horretako lanak egiteko dirua ez litzatekeela hartu beharko Euskara Saitetik, baizik eta batzuetan Industria Saitetik, beste batzuetan Merkataritza Saitetik, eta horrela, hurrenez hurren sail guztietatik. Hortaz, euskara ez litzateke departamendu bat izanen, unibertsoa baino.

Leitzarrak azpimarratu zuen, behin eta berriz, euskararen unibertso horren barruan gaudenok garelako kontzeptu eta definizio berriak egin behar ditugunak, eta ez orain arte bezala, erdal unibertsoetatik inposatzen dizkigutenak besterik gabe onartu. Laburbilduz esango dut: nahiz eta hitzaldian pertsonaren batek unibertso hori ezkortasunez ikusi zuen, neronek baikortasunez entzun nuen; interesgarria deritzot. Ongi etorri ba, eta aurrera! ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Justo Mari Mokoroa
Mujika: "in memoriam"

■ Sobera berandu gabiltz, baina bai bederen hilaren barruan, izan ere aurtengoarekin sei urte pasatu baitira Justo Mari Mokoroa-Mujika "Ibar" joan zitzaigunetik, 1990.eko azilaren 7 hartan hain zuten. Mokoroaren aikoa Tolosan daukagu erroturik, eta bertan jaio zen gure Justo ere 1901.eko maiatzaren 28an. Gazte zela apez izateko erabakia hartu eta eskolapioetan sartu zen, orduko kalasanzdarren ibilbide arruntari ekin zitolarik: Tafalla, Oskako, Peralta, Iratxe eta Zaragoza. 1924.ean On Mateo Mujika gotzaiaren eskutik apeztezu zen horrezkero, eta Txilen irakasle ihardun zuen ostean, 1993.ean Euskal Herriko probintziaburuaren laguntzaila gisa Iruñera itzularazi zuten. Alabainan gerratea asirik, eta bere orden nagusiak beldurraren beldurrez, iparralderuntz bidaldu zuten Ibar, eta Beloken nahiz Akizen bazen aritu apeztegiagietan maisu. 1941.ean Chilera joan zen harzara bederatzit urtez, handik eta betiko bizitokia Euskal Herrian pausatzeke.

Paper txuriak zirriborroztatzearekiko grina ez zuen haatikoa, bada aita Baleriano ere euskal idazlea edo bertsoegilea balkeenuen etxean berean. Apeztezu baino lehen lan abondo bazituen onduak jada, hainbat lehiaketetan eskuratu sarik salatu bezala: Oker-baten ondorea -1923-, Omen gure aiantari eta Euskaldunen sinezkizunak -1924- Gizabidea eta Euskararen etorkizuna -1925-, Gazte zeneko euskal lehendabiziko idazki hauek Euskal Esnalea, Argia, edota La voz de Navarra aldizkako argitarapenetan agertarazi zituen. Chilen ere etzion izkiriatzeari utzi nahi, eta hango Euzkadik agerkarian euskal idazleei buruzko krestomatia azaldu zuen «Gure baratzeko loreak» lempaean. Edozein modutan ere, Iruñeratu artino etzuen liburu gisako argitalpenik egin. Lehendabizikoa Genio y Lengua erdal izkribu txikerra baina sendoa dugu. Aita era osabaren argitaldarien eskutik eta Beasaingo Ezkiagaren moldeetan egina, gerrateak hasmenta ukan baino hogei egun lehenxagoatera zen karrikara. Liburu hau bere giron ezarri behar da, Aitzolek, Altubek eta bestek euskara mintzatua eta euskara idatzaren artean orduan hatzematen zen nasa sakonari buruz ondutakoen parean. Ibar beti ere benetako euskal sena eta ildo herrikoien aldeko sutsua izan zen, hainbat idazlek zerabilen euskara zaildu eta ulergaitzari aihor: *Al pobre pueblo euskaldun lo tenemos desfilado de ayuno. Pide pan y servimos drogas que repugnan a su paladar o no puede soportar su estomago, y porque se resiste a ingerirlas todavía le hacemos la culpa de que se está muriendo de inanición.*

Handik aitzina, Mokoroaren kinkak berean tema iraunen zuten, eta behin baino gehiagotan ukitu zuen ber gaia bere bestelako idazkietan, usu bezain naroki gainera: *El problema del vascuence* 1952.ean Villasanteri Igorri eskutitza; *De vida o muerte: operación salvamento*, 1956.ean Arantzazuko batzarrean irakurri txostena; *Lengua vasca de hoy y de mañana*, Zarauzko itxaropenatik 1973.ean elki euskara batua gainera burutapenezko ore arrenkuratsua eta Euskaltzaindarien erabakien aurkari zuzena.

Halarik ere, eta ildo honetatik larregi urrundu gabe, Mokoroaren lanik azpimarragarriena *Ortik eta emendik: repertorio de locuciones del habla popular vasca* izenburua daraman bilduma lan itzela genuke, ia zalantzarik gabe. Labayrukoek Mokoroa bera zendu baino apur bat lehenxago argitaratu emaniko hau Tolosakoa kezkatzen zutenen guziet erantzumbidea litzateke nolabait. 200.000 eseretik gorako biltze lan eskerga da Mokoroak egin zuena, beti ere euskararen barne barneko benetako mui eta sena ezalgura, espresiarik zuzenena gogoan. Hona hemen Ibarren pentsamendua laburbildua lan honetarako Antonio Zabalak ondu hitzaurrean: *Euskaldun zaar baten aotik, batez ere mendikoa bada, etengabe entzungo ditugu euskal esakerak, zein baiño zein jatorragoak. Olakorik oso gutxi somatuko degu euskaldun gazte askoren aotik, ta are gutxago kaletarrak baldin badira. Jada aipatu dugun Genio y Lengua liburukian idazle askoren hizkera deitoratzen zuten samink, eta bide batez, Aitzolek Euzkadik egunerokoan baieztatutakoak ukatzen zituen, hau da, inolaz ere Mokoroak ezin zuen onartu euskal literaturaren beherakada azaltzeko Aitzolek ematen zuten arrazoiak: *La falta de lectores y la indiferencia glacial del público vasco por los libros euskaldunes, triste realidad que lleva al desaliento a escritores y literatos.* Ibarren uestez egin beharreko literaturaren laginak egon bazeuden, eta Orixeren *Euskaldunak* olerkia euskaraz eginiko artelan hobenetarikoa zuen, baita jarraiki beharreko adibiditza ere hartzen zuen ziurtasun osoz. Agian, Nikolas Ormaetxea idazle haundia gogoan zukeen *Ortik eta emendik* bildumarako atarikoan honelaxe zibonean: *Entre las frases vascas registradas en mi colección figura esta perla: enekian baño banekian oña da; ezbearrrik eztaietan, que viene a decir en sustancia, más vale prevenir que luego tener que lamentar, quizá cuando el mal ya no tiene remedio. Era como para tenerlo en cuenta en las horas críticas que vive nuestra lengua a los ojos de quienes sienten.* ■*



Nafarroako taldekako txapelketako maila nagusiko bosgarren jardunaldiko partida, 1996ko azaroaren 9an jokatu.

Iker Ojer (Atarrabiako Paz de Ziganda), 1.740 ELOkoa — Laura Jordana (Lizarrako Alekhine "A"), 1.835 ELOkoa.

1.e4, c5; 2.Zc3, Zc6; 3.d3, d6; 4.g3, e6; 5.Ag2, Zf6; 6.Zf3, a6; 7.0-0, Ae7; 8.h3,0-0; 9.Zh2, b5.

Ikus koadroa. Beltzek arin jokatu dute, diagonal bat zurien esku utzita.

10.e5, Zd5; 11. Zd5, d5; 12.Ad5, Dc7. 13.d6, Ad6; 14. Ag2, Ad7; 15. Ae3, Ag-e8; 16. Gel, Ze7; 17. Zf1, Zf5; 18.Ad2, Ac6; 19.Ac6, Dc6; 20.c3, Ge1; 21.Ae1, Ge8; 22.Ad2, Ge6; 23.Zh2,

Gg6; 24.Df3, Df3; 25.Zf3.

Trukeen estrategia erabiltzen ari dira beltzak, baina taula garbitzea ez da beren onerako.

25...., h5; 26. Ef1, Ae7; 27. Af5, Ad6; 28. Ad6, Gd6; 29. Gd1, Gf6; 30.Ee2,b4; 31.b4,b4.


Trukea truke, peoi pasatua lortu dute zuriek.

32.Gel, Ge6 xa; 33.Ed2, f6.

Beltzen defentsa ez dago antolatuta; ondorioz, bigarren peoia eroriko da.

34. Gc8 xa, Ef7; 35.Gb8, a5; 36. Ga8, g6; 37. Ga5, Gd6; 38.a4, a3; 39.a3, Zd4; 40. Zd4, Gd4; 41.Ee3, Gd7; 42.Ga6, g5; 43.a4, Eg6; 44. g4.

Eta partida erabakia zegoenez, beltzek etsi egin zuten. Piezen kokapenarekin ez zuten asmatu.



Iñaki Zabaleta: «Euskaldunak unibertso gara eta ez kategoria»

EHUko irakaslea euskal unibertsoaz eta hori gauzatzeko dituen erronkaz mintzatu da Iruñean

Iñaki Zabaleta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea euskal unibertsoaz mintzatu da Iruñean. Zabaletaren ustez, euskaldunak «unibertso gara». Hori litzateke, «osotasun bat, haundi-txiki, plurala, desberdina, orekatua, desorekatua, eta ez beste unibertso baten adarra, hots, ez beste baten kategoria».

Irene Arrizurieta / Iruñea

IÑAKI ZABALETA Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) irakaslea eta idazlea Iruñean izan da aste honetan. Nafarroako Ateneoak gonbidatuta *Euskal unibertsoaz* mintzatu zen, zer den edo zer izan behar lukeen gogoeta egin zuten.

Euskaldunak bi mundu erdaldunen artean —espainola, eta frantsesa— murgildurik betidanik hizkuntzarekin kezkatuak ibili omen dira batez ere: zer-nolako erabilpena eman, nola zabaldu eta gizarteratu... Beste maila batean komunitatea dago. Beste hizkuntza askotan sortu den mugimenduari jarraikiz, orain hizkuntzaren sujetua ez da hiztuna, komunitatea baizik. Komunitatea dago hiztuna baino lehenago, eta, euskal hiztunak eskubideak badituen arren, inolaz ere ez ditu zainduko komunitate batean ez badira defendatzen. Beraz, orain protagonista ez da hizkuntza bera, hori erabiltzen duen komunitatea baizik.

Euskal unibertsoa zer ote • Joan den abenduan Andoainen bildu ziren Egunkaria Sortzen taldeko partaideak, Ingurua eta mundua aldatzen ari dela oharturik, euskalgintzan aritzen direnen gogoe-



Iñaki Zabaletak luze hitz egin zuen euskal unibertsoaz.
JOXE LACALLE

pimarratu zuen euskaldunak ez direla hori. «Departamentu izatea kategoria edo parte izatea da. Baina gu ez gara parte, baizik unibertso osoa. Horrek esan nahi du euskararen munduak baduela presentzia ekonomian, industrian, kirolean, kulturean eta besteetan. Baina, guk euskaldunok geure mundua, izana eta komu-

laniaren unibertsoa dago eta Iparraldean frantsesarena. Bi unibertso horiekin batera euskararen unibertsoa egon badago, baina ez digute aintzakotzat hartzen, ez digute bere existentzia onartzen, baizik eta hori euskararen departamentua da, zatia da», dio EHUko irakasleak.

Oinarrian dagoen irizpidea da

«Euskararen munduko diskurtsoa argitu» • Joan den urteko bilerraren ostean beste batzuk etorri dira. Azken bileran hiru talde egitea erabaki zuten: gogoetarako, eragin sozialerako eta plangintza orokorra egiteko. «Euskararen inguruan daukagun diskurtsoa berritu, zer desafio daukagun aurrean, nola jokatu

«Guk, euskaldunok, onartzen dugu euskararen departamentua izatea ona dela, baina horrek luzera antzutu egiten gaitu»

ta beharra azpimarratu zen. Bileran ideia bat sortu zen: «Gu unibertso gara eta ez kategoria». Esaldi hori aintzat hartuz, Zabaletak uste du euskaldunak osotasun bat direla, ez zati bat. «Gu gorputz osoa gara, pertsona oso bat, ez besteen unibertso, beste mundu baten besoa edo adarra. Gertatzen dena da mundu hori ahula dela». Hau guztia azaltzeko Zabaletak Administrazioako sail desberdinak gogoratu zituen. Sail guztien artean euskarak beara du. Horrek esan nahi du euskararen guzti-guztia departamentu horretan kokatzen dela eta ez beste inon. Hori ikusirik, Andoainen bildutako taldeak az-

nitatea mugatzen badugu departamentu bat izatera, adibidez, gu ez gaude industrian, eta hemen hartzen diren erabakietan euskal mundua ez da kontutan hartzen erdararen unibertsoan kontsideratuta direlako».

Beraz, nahiz eta euskararen mundua present egon neurri batean edo bestean industrian, merkataritzan, kulturean edo kirolan, ez du eraginik, egitura moduan ez duelako presentziarik. «Guk euskaldunok, normalean, onartzen dugu euskararen departamentua izatea gauza on bat balitz bezala, baina azkenean luzera filosofia horrek antzutu egiten gaitu». Hegoaldean gazte-

hori, Uste eta mundu ikuskera horren aurrean Zabaletak dio euskaldunak «txip-a aldatu» behar dutela eragina egiteko Administrazioak ezezik gizarteko beste arloetan ere. «Guk eragina izan behar dugu gizartean. Hor dauden erabakigileek erdararen mundua bakarrik hartzen dute aintzakotzat, baina guk ez badugu euskararen unibertsoa aldarrikatzen, erabakigile horiek inoiz ez dute kontuan hartuko euskararen mundua, euskal unibertsoa osoa izan arren». Irakasleak uste du, gainera, erdaldunek ezezik euskaldun askok ere ez diotela errealitate honi erreparatzen.

behar dugun eta komunitatea hartu behar dugu ardatz. Ahots koordinatuak lortu eta auzolana egin behar da».

Hiru talde horiek hiru txosten landu dituzte eta gutxi barru Euskal Herrian zabaltzen hasiko dira. «Gonbidatzen dugu euskaldun oro ekarpenak egitera eta 1997ko otsailean eginen diren jardunaldietan eztabaidatuko ditugu».

Helburua, euskaldunen diskurtsoa berritu, elkarlan proiektuak aurrera ateratzeko gizarteko erabakigileen aurrean. «Gu mugimendu bat gara euskararen unibertsoa aurrera ateratzeko garai aldakor hauetan».

Jardunaldiak heldu den otsailean

JOAN DEN abenduan Egunkaria Sortzen taldea bildu zenez geroztik beste bilera batzuk ere izan dira euskararen inguruan dauden kezkek biltzeko, erronkak ikusteko eta egoeraz kezkatutako gogoeta egiteko, aurrerapausoak ematearren. Hortik dei bat egin zitzaion hainbat euskaltzaleri eta Donostiako Miramar Jauregian bildu ziren 30 bat lagun. Bilera horretara eraman zen «gu unibertso gara eta ez kategoria» ideia. Gogoetaren ostean zerbait idaztea otu zitzaion eta ideia horren inguruko nondik-norakoak beste batzuen artean banatu zituzten. Miramongo lehenengo bilerak bigarrena ekarri zuen «pentsamenduak eta jokabideak aztertze».

Miramongo bigarren deialdian ehun lagun bildu ziren. Bileran erabaki zen euskararen unibertsoaren aldeko mugimendu bat martxan jartzea, gogoeta egiteko, eragin soziala bideratzeko eta euskal munduaren plangintza zehazteko. Geroztik, eta udan batez ere, hiru taldeok lanean ari izan dira otsailean eginen diren jardunaldiei begira.

Jardunaldietan hiru taldeek euren gogoetan aurkeztuko dituzte. Lehenengoak euskal unibertsoa zer den egin du gogoeta; bigarrenak, eragin soziala lortzeko egin beharreko ahaleginak eta hori bideratzeko plangintza aztertu ditu. Hala ere, hastapenak besterik ez dira, jardunaldiak baino lehen Euskal Herrian banatuko diren hiru txostenek nahi duenak egiten dituen ekarpenak ere bateratu behar harko baitira. «Laster banatuko dira euskaltzaleen artean txosten horiek. Guztiak daude gonbidatuak eztabaidara, inor ez da bazterten. Guztien partehartzea nahi dugu. Ez dago itxia, hasi besterik ez baikara egin».

Gogoetarako eta eragin soziala izateko eratu den mugimendu honek euskaltzale asko biltzen ditu, beste batzuen artean Jon Sarasua bertso-laria, Eugenio Arrazola Eusko Ikaskuntzako partaidea, Xabier Mendiguren Bereziartu itzultzailea, Laura Mintegi idazlea eta politikan aritzen den ideia desberdinetako jendea. Eta Zabaletak zioen moduan, nahi izanez gero, euskaldun guztiak. Zeren, haren irudiko, asko dago joan. «Euskara ez dago gaizki, bere unibertsoa baizik, eta horri aurre egin behar diogu euskaratik euskal komunitatera eta euskal unibertsoa jautzia emanez». X

«Euskal unibertsoa egon badago, baina ez gaituzte aintzakotzat hartzen, erdal munduek ez digute existentzia onartzen»

◆ Jon Iribarren ◆ Nahi ta Nahiez taldeko abeslaria

«Baserri rocka jotzen dugu»

Nafarroako Nahi ta Nahiez taldeak 'Basurdearen orrua' bere bigarren diskoa karrikaratu berri du, Oihuka disketxearen eskuetik. Joan den asteartean Iruñeko Xalbador liburutegian konpaktoaren aurkezpena egin zuten. Horren gibeletik, Nahi ta Nahiez-i buruz, baserri rocka asmatu duen taldeari buruz, mintzatu zen Jon Iribarren taldeko abeslaria EGUNKARIA-arentzat.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

OIHUKA disketxeak — tamalez galdu egin den ohitura berreskuratuz — pintxoak banatu zituen Nahi ta Nahiez-en diskoaren aurkezpenaren amaieran. Detalle polita izan zen. Disko eta liburu guztien aurkezpenetan pintxoak banatzen zituzteneko garai zoriontsua etorri zitzaidan burura. Malenkoniak jota nengoen, eta gogorra egin zitzaidan piper pintxo goxoak eta ardo gorri nafarra alde batera uztea, eta Jon Iribarreni elkarrizketa egitea. Alimalako ahalegina eginez, elkarrizketa egin nion. Ez nintzen damutu, horri esker baserri rocka zer den jakin dut eta.

■ Zer da baserri rocka?

Gu herrikoak gara, baserrikoak, eta rocka jotzeko eskubidea dugu. Guk baserri rocka jotzen dugu, eta hori rocka eta jaita da. Badakizu, herrietan beti izaten dira jai egunak, eta horiek garrantzizkoak dira. Hemen, Iruñean edo hiriburuetan jairik ez dago, diskotekak eta horrelakoak bai, baina jairik ez. Herriko giroa herri jaita da, eta gure rocka horri buruzkoa da. Denetarik nahasten dugu: reggae, rocka, ska...

■ Plazaelaren martxa zuten lehen diskoa grabatu zutenen taldeko Xabi baxu jolea, Aitor bateria jolea eta Gorka teklatu jolea oso gazteak ziren, 15 urte



Ezkerretik eskuinera, Gorka, Aitor eta Jon euren diskoaren aurkezpenan.

JOXE LACALLE

inguru besterik ez zuten. Egun, berriz, 19 daukate, helduagoak dira. Taldea ere helduagoa al da?

Bai. Hainbeste kontzertu egin eta gero ohitura hartzen duzu. Askoz lasaiago ateratzen zara, abestiak lasai aski abesten dituzu, eta badakizu jendearékin nola kontaktatu. Eta hori da Nahi ta Nahiez, jendea eta bost partaide. Diskoan, abestiak lehen bezala alaiak dira, baina sendoagoak dira konposizio aldetik, finkatua goak.

■ Bestalde, zuen estreinako diskoa inolako zigituren laguntzarik gabe, dirua zuen poltsikotik jarriz grabatu zenuten Arion estudioetan. Basurdearen orrua egiteko, berriz, Oihukaren babesa izan duzue. Aldaketa ez zen nolana hikia izanen.

Oihukarekin ez genuen denbora murriztuta. Nahi genuen

denbora guztia genuen grabatzeko. Ez daukazu presiorik grabatzerakoan. Gero euskaraz dakien teknikari bat daukazu, Cesar Ibarretxe, eta nola abestu behar duzun esaten dizu. Gure musika asko gustatzen zaio, eta horrek asko laguntzen du 'hau berriz egin behar duzue', 'hau ongi dago', 'hau gaizki dago' eta antzekoak esateko orduan. Han bertan lo egin genuen, eta denon artean giro polita sortu genuen. Hori ere garrantzizkoa da. Bateria grabatzeko, adibidez, 20 mikrofono erabili zituzten. Guk ez genekien hori egin zitekeenik ere. Mikrofono bat bateriatik zazpi metro ingurura jarri zuten, ez dakigu zertarako, baina jarri zuten, eta hori guretzat oso ongi dago. Gero zenbait musikariren laguntza izan genuen. Kanta batean De Dos en Blues Band taldeko Patxi O'Clockek armonika sartu zuen...eta orain kantan, eta Elkarreko Anjel Valdesek tam-tama jo zuen Txirrikola abestian. Guztia oso ezberdina da.

Bestalde, banaketaz ez dugu arduratu behar. Hori Zabaltzenek egingo du. Lehendabiziko diskoan horrekin zoratu ginen: dis-

koak eramán, dirua jaso, izugarriko mobida zen.

■ Zergatik Basurdearen orrua?

Basurdea Euskal Herrian bere burua eta bere gauzak hobekien defendatzen dituen animalia da. Horregatik hautatu genuen animalia hori. Basurde batek bere burua arriskuan ikusten badu, kontuz ibili beharko duzu. Gu ere horretan gaude. Geure letrak geure burua eta geure gauzak defendatzeko modu bat dira.

■ La Polla taldeak aspaldian esan zuten Urbasan jada ez dagoela basurderik. Taldekide batzuk Urbasa aldekoak dira...

Inguru horretan badira basurdeak, eta gero eta gehiago gainera. Diskoan, adibidez, benetako basurde baten orrua sartu dugu Beste bat kantan. Hiru aste eman genituen bere atzetik.

■ Diskoan ba omen da ezusteko txiki bat.

Bai. Diskoan 10 kanta daudela jartzen du, baina 11 daude. Urtero euskal kantu txapelketa egingo da, eta Gorkak eta Aitorrek kanta aurkeztu zuten horretara. Finalerako sailkatu ziren. Hori grabaturik gorde nahi genuen, eta hor dago, diskoan ezkutatu-

soslaita

Nahi ta Nahiezkoek euren lehen diskoa grabatu ahal izateko, dirua euren poltsikotik jarri behar izan zuten. Disketxeek ez zuten euren alde apustu egin. Oker zebiltzan, Plazaelaren-martxan lehen disko horren 5.500 ale saldu dira eta...

Aurtengo Etxarriko Nafarroa Oinezeko Herri-kolore kanta egin zuten. Antolatzaileek ez zitzaizkien gustatu hitzak, eta aldatu egin zituzten. Basurdearen orrua disko berrian kanta bere jatorrizko hitzekin entzun daiteke.

Oihukaren babesa eduki dute disko berria grabatzerakoan, eta gauzak zeharo aldatu dira: disketxeak diru guztia jarri du, grabatzeko nahi adina denbora izan dute, goi mailako estudioetan aritu dira... eta disko kopuru jakin bat saltzen badute, beste disko bat grabatzeko aukera izanen dute.

ta. Gitarra akustikarekin egingo da, eta behin grabatu zuten, besterik ez. Bere freskotatua gorde nahi izan zuten, akats eta guzti.

■ Nora jo behar du zuen Basurdearen orrua zuzenean entzun nahi duenak?

Diskoaren aurkezpena Iruñeko kartzelan egiten saiatuko gara. Karnetak bi aldiz eman dizkiegu, baina arazoak daude. Beste batzuek arazorik gabe jotzen dute hor, baina gu arazoak izaten ari gara. Horrelako gauzak ikusteko aukerarik ez dute, eta han egin nahi dugu. Gero hilaren 28an Zangozan euskal rockari buruzko hitzaldia eskainiko dugu. Jendea hitzaldiak emateko deitzen digu azken bolada honetan. Hilaren 29an Zangozan bertan kontzertua egingo dugu. Hilaren 30ean Aurizberrin joko dugu, Prostituzioaren Egunean Leitzañan, eta abenduaren 20an Barañainen. Bistan denez, kontzertu gehienak Nafarroan egiten ditugu, jendeak badakielako disko honekin ari girela. Kanpora ateratzeko gehiago kostatzen zaigu, baina, tira, harremanak baditugu, eta gauzak ateratzen hasi dira. x

«Herrikoak gara, baserrikoak, rocka egiteko eskubidea dugu, eta baserri-rocka jotzen dugu, baserri jaita»

P A N E LUCRANDO

ZALDI EROA

